



6. BALIABIDEAK

Ekipoa	Bere kasa garbitzen den iragazki minerala
Kodea	F-6000
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - 1 mikra arteko partikula solidoak iragazten ditu, % 99,9ko bereizketa-efizientziarekin. - Olio askeak atxikitzen ditu, eta 5 mg/l-tik beherako hondakina uzten du.
Honetan datza:	<p>Makina-erremintan integratutako iragazkia da.</p> <p>Ale mineralez betetako tanga bat da. Likido zikina sartzen da goiko aldetik, eta, hondakinak mineralean atxikita geratu ondoren, likido garbia ateratzen da beheko aldetik, gero erabiltzeko.</p> <p>Mineralaren artean hondakinak pilatu ahala, bonbona iragazleko presioa areagotu egiten da. Presioa balio jakin batera heltzean, bonbona iragazlea garbitzeko unea da.</p> <p>Ale iragazlea korrontez kontra garbitzen da. Likidoa beheko ahotik sartzen da eta goiko aldetik atera, eta mineralean pilatutako partikulak arrastatzen ditu dekantazio-tangarantz. Geroago, garbitzeko erabilitako likidoa berreskura daiteke, eta partikulak tangaren hondoan geratzen dira, ateratzeko zain.</p> <p>Hain zuzen ere, hurrengoak dira iragazketa-sistema honen ezaugarri nagusiak:</p> <p>Langileak ez dauka adi egon beharrik, makinak berak bere kasa detektatzen bai garbitzeko beharra eta bere kasa egiten baititu behar diren garbiketak</p> <p>Korrontez kontrakoko garbiketetan hondakinak bakarrik ateratzen dira, eta ez ale iragazlea. Beraz, elementu iragazlerik galtzen ez denez, iragazkiak iraupen mugagabea du.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Honako hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementu metalikoak fabrikatzeko industriak, makineriak eta ekipoak izan ezik (NACE 25). - Makineria eta ekipo mekanikoak egiteko industriak (NACE 28,4). - Automobilgintza (NACE 29). - Metalaren industria (NACE 24).